Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko ekainaren 8a, asteazkena — 108 — Miércoles, a 8 de junio de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ESKORIATZAKO UDALA

*Euskara ikasteko matrikulen diru laguntzen laburpena. BDNS (Identif.): 630257.*

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/630257).

*Lehenengoa. Onuradunak.*

Dirulaguntza hauek Eskoriatzan erroldatuta dauden pertsona fisikoek eskuratu ahal izango dituzte.

Dirulaguntza honen helburua kontuan izanik eta 38/2003 Legeak, Dirulaguntzak ematea arautzen duenak, 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntza emango duen erakundean zinegotzi edo plantilako langile direnek ere eskuratu ahal izango dituzte araudi honetako laguntzak.

Gainera, Eskoriatzako kirol edo aisialdi elkartean diharduten pertsonek ere eskuratu ahal izango dituzte dirulaguntza hauek, euren egitekoa hizkuntza normalizazio prozesuan erabakigarria denean.

*Bigarrena. Helburua.*

Oinarri hauen helburua da euskara ikasi eta HABEn mailarik egiaztatu ez duten eskoriatzarri (aurkeztu ez direlako edo maila egiaztatzea lortu ez dutelako) euskara ikasteagatiko gastuak ordaintzeko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.

Laguntza hauek Leintz Udal Euskaltegian nahiz udal euskaltegitik kanpoko euskaltegi edo barnetegietan egindako ikastaroak finantzatzen laguntzeko emango dira, betiere, bete beharreko baldintzak betetzen badira.

*Hirugarrena. Oinarri arautzaileak.*

Deialdiaren testu osoa, oinarriak jaso tzen dituena, osorik argitaratuko da DNBn eta udal webgunean.

*Laugarrena. Zenbatekoa.*

Aurrekontu izendapena 1.000 eurokoa da, eta 2022ko honako aurrekontu-aplikazioaren kargura finantzatuko da: 0600.481.335.00.01.

*Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea diru laguntzetarako deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egun baliodunean hasiko da eta deialdiko urtearen azaroaren 30ean amaituko da.

Eskoriatza, 2022ko maiatzaren 30a.—Alkatea. (3655)

## AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA

*Extracto de la subvención para ayudar a sufragar los gastos de matrículas de parendizaje de euskera. BDNS (Identif.): 630257.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/630257).

*Primero. Beneficiarios.*

Podrán acceder a estas subvenciones las personas físicas empadronadas en Eskoriatza.

Atendiendo la naturaleza de la subvención, y al amparo de la previsión contemplada en el art. 13.2 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones, podrán obtener la condición de beneficiarios de las subvenciones reguladas en las presentes bases, los corporativos y personal de plantilla del organismo convocante.

Además, la personas que participen activamente en asociaciones de deporte y tiempo libre de Eskoriatza, también podrán ser beneficiarios de la subvención, siempre que su labor sea significativa en dicho ámbito.

*Segundo. Objeto.*

Es objeto de estas bases regular las condiciones de subvención para sufragar los gastos de aprendizaje de euskera a los eskoriatzarras que hayan estudiado euskera y no hayan acreditado un nivel de HABE, bien por no haberse presentado o bien por no haber conseguido acreditar el nivel.

Estas ayudas se concederán, siempre que se cumplan los requisitos exigidos, para financiar cursos realizados tanto en Leintz Udal Euskaltegia como en euskaltegis o barnetegis ajenos al euskaltegi municipal.

*Tercero. Bases reguladoras.*

El texto íntegro de la convocatoria, comprensiva de las bases, es objeto de publicación íntegra en la BDNS y la web municipal.

*Cuarto. Cuantía.*

La dotación presupuestaria del año 2022 es de 1.000 euros y la partida presupuestaria correspondiente incluida en el presupuesto municipal es la 06100.481.335.00.01.

*Quinto. Plazo de presentación de solicitudes.*

El plazo comenzará a partir del siguiente día hábil al de la publicación de la correspondiente convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL DE Gipuzkoa y hasta el 30 de noviembre del año de la convocatoria.

Eskoriatza, a 30 de mayo de 2022.—El alcalde. (3655)

EK\CV GAO-I-2022-03655